

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica*

37. Euskal Soziometroa
Sociómetro Vasco 37

2008ko uztaila
Julio 2008



http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1		
LABURPENA / SÍNTESIS	3		
A – EGOERAREN BALORAZIOA / VALORACIÓN DE LA SITUACIÓN	6		
• EAEko egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala / Situación económica, política y social de la CAPV	7		
• EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV	11		
• Administrazioarekiko poztasuna / Satisfacción con la administración ..	16		
B – EUSKO JAURLARITZAREN JARDUERAK / ACTUACIONES DEL GOBIERNO VASCO	19		
• Giza eskubideen eta elkarbizitzaren arloko jarduerak / Actuaciones del ámbito de los derechos humanos y la convivencia			
○ Ezagutza / Conocimiento	20		
○ Garrantzia / Importancia	21		
• Neurri sozialak / Medidas sociales			
○ Ezagutza / Conocimiento	22		
○ Garrantzia / Importancia	24		
• Azpiegituren arloko jarduerak / Actuaciones del ámbito de las infraestructuras			
○ Ezagutza / Conocimiento	26		
○ Garrantzia / Importancia	27		
		• Zientzia, teknologia eta ingurumenaren arloko jarduerak / Actuaciones del ámbito de la ciencia, la tecnología y el medio ambiente	
		○ Ezagutza / Conocimiento	28
		○ Garrantzia / Importancia	29
		• Osasunaren arloko jarduerak / Actuaciones del ámbito de la sanidad	
		○ Ezagutza / Conocimiento	30
		○ Garrantzia / Importancia	31
		• Enpleguaren arloko jarduerak / Actuaciones del ámbito del empleo	
		○ Ezagutza / Conocimiento	32
		○ Garrantzia / Importancia	33
		• Kultura, kirola eta hezkuntzaren arloko jarduerak / Actuaciones del ámbito de la cultura, el deporte y la educación	
		○ Ezagutza / Conocimiento	34
		○ Garrantzia / Importancia	36
		C – JARRERA POLITIKOAK / ACTITUDES POLÍTICAS	38
		• Buruzagi politikoen balorazioa / Valoración de líderes políticos	39
		• Independentziari buruzko jarrera / Actitud respecto a la independencia	40
		ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	43

Sarrera / *Introducción*

Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

Ikerketa honen **helburua** euskal herritarrok nolakoak garen jakitea ez ezik, denboran zehar gure jarrera politiko orokorretan eta gure inguruko egoerari buruzko iritzietan nola aldatzen garen ezagutzea ere bada.

Espainiako Estatuko herritarrekiko ditugun antzekotasun eta desberdintasunak ere ezagutu nahi ditugu.

Ikuspegi deskribatzaile, ebolutibo eta konparatibo honek gidatuko ditu ondoko orriok.

Txosten hau Euskal Soziometroen bildumaren **2008ko bigarren ekarpena** da eta euskal gizartearen argazkia ematen digu. Aurkeztutako emaitzak bildumaren 37. ikerketan erabilitako berriazko galdesortatik datoz. Ikerketa hori 2008ko apirilaren 15a eta 30a bitartean gauzatu da.

El **objetivo** de este estudio es conocer, cómo somos los vascos y vascas y cómo vamos evolucionando a lo largo de los años en relación a nuestras actitudes políticas y a la valoración que hacemos de la situación de nuestro entorno.

También queremos conocer las similitudes y diferencias que presentamos respecto a las y los ciudadanos del Estado Español.

Este enfoque descriptivo, evolutivo y comparativo es el que va a guiar las páginas que siguen.

Este informe es la **segunda aportación del año 2008** a la serie de Sociómetros Vascos y constituye un retrato de la realidad social vasca. Los resultados presentados proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 37 de la serie, realizado entre el 15 y el 30 de abril de 2008.

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuak biztanleria guztirako ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoaren arabera** ere aztertu dira. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 eta >=65.*
- Politikarekiko interesa: *handia edo nahikoa, gutxi, batere ez.*
- Begikotasun politikoa (Eusko Legebiltzarrean daudenetatik, begikotasunik handiena eragiten dion partidua): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, bat ere ez, denak berdin, ed/ee.*
- Eusko Jaurlaritzaren jardueren ezagutza: *Bai, Ez+Ed/Ee*

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65.*
- Interés por la política: *Mucho o bastante, poco, nada.*
- Simpatía política (partido del Parlamento Vasco por el que siente más simpatía): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, EHAK, EA, EB, Aralar, ninguno, todos por igual, ns/nc.*
- Conocimiento de actuaciones del Gobierno Vasco: *Sí, No+Ns/Nc*

Laburpena / *Síntesis*

Nola baloratzen dugu EAEko egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala?

Egoera ekonomikoa eta soziala ona edo oso ona dela diote herritar gehienek (%58k eta %65ek hurrenez hurren). %25ek bakarrik dute, aldiz, egoera politikoari buruzko iritzirik baikorra; jende gehienak (%61ek) txarra edo oso txarra dela dio.

EAEko arazo nagusiak, herritarren ustez, lan merkatua (langabezia, lan baldintzak...), etxebizitza eta indarkeria eta terrorismoa dira (herritarren %47k, %46k eta %43k aipatu dituzte hurrenez hurren, hiru arazo nagusien artean). Gutxiagok aipatu dituzte arazo ekonomikoa (%22k), Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa (%20k) eta immigrazioa eta berarekin lotutako arazoak (%10ek), eta are gutxiagok beste hainbat arazo.

EAEko biztanle gehienak pozik daude beren herriko Udalarekin, beren lurraldeko Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin. Espainiako Gobernuarekin pozik daudenak pozik ez daudenak adina dira, eta Europako Batzordeari dagokionean, apur bat gehiago dira pozik daudenak, pozik ez daudenak baino.

Eusko Jaurlaritzaren zein jarduera ezagutzen dira gehien? Eta zenbateko garrantzia ematen zaie?

Eusko Jaurlaritzak arlo desberdinetan egindako zenbait ekimen edo jarduera zehatzei buruz galdetu zaie inkestatuari. Giza eskubideen eta elkarbizitzaren arloko ekimenen artean ezagunenak terrorismoaren biktimen errekonozimendurako neurriak (%72k ezagutzen dituzte) eta frankismoaren biktimen omenezko ekitaldiak (%55ek) dira, baina herritarrek garrantzirik handiena Ertzaintzaren komisaldegietan atxilotuek tratatu egokia izan dezaten hartutako neurriari (7,2 puntu 0-10 eskalan) eta Bakerako Hezkuntza Planari (7,1) eman diete.

Eusko Jaurlaritzak abiatutako neurri sozialen artean, berriz, ezagunenak alokairuko etxebizitzak bultzatzeko Bizigune programa eta Babes Ofizialeko Etxebizitzak (%86k ezagutzen dituzte) eta familientzako laguntzak, seme-alaben jaiotzagatikoak eta lana eta familia bizitza bateratzekoak dira (%84k). Garrantzirik handiena pentsiodunentzako laguntzei eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Legeari eman diete (biei 8,2 puntu 0-10 eskalan).

Azpiegituren arloan ezagunenak Abiadura Handiko Trena (%88k ezagutua) eta Bilboko metroa Ezkerraldera luzatzea (%60k) dira. Garrantzirik handiena Internet sustatzeko neurriari eta metroa Ezkerraldera luzatzeari eman diete (7,5 eta 7,4 puntu hurrenez hurren).

¿Cómo valoramos la situación económica, política y social de la CAPV?

La mayoría de la población opina que la situación económica y social es buena o muy buena (58% y 65% respectivamente). Por el contrario, sólo un 25% tiene una opinión positiva sobre la situación política; la mayoría (61%) dice que es mala o muy mala.

Los principales problemas de la CAPV, según las y los ciudadanos, son el mercado de trabajo (paro, condiciones laborales...), la vivienda y la violencia y el terrorismo (mencionados respectivamente por un 47%, 46% y 43% de la población como uno de los tres problemas principales). Han sido menos quienes han mencionado los problemas económicos (22%), el conflicto y la situación política del País Vasco (20%) y la inmigración y problemas relacionados (10%), y menos aún quienes han mencionado otros problemas.

Las y los habitantes de la CAPV están satisfechos con el Ayuntamiento de su localidad, con la Diputación Foral de su territorio y con el Gobierno Vasco. Quienes están satisfechos con el Gobierno Español son tantos como quienes no lo están, y con respecto a la Comisión Europea, son algunos más las y los satisfechos que los insatisfechos.

¿Qué actuaciones del Gobierno Vasco se conocen más? Y ¿qué importancia se les atribuye?

Se ha preguntado a las y los encuestados sobre algunas actuaciones o medidas concretas llevadas a cabo por el Gobierno Vasco en distintos ámbitos. Las actuaciones más conocidas en el ámbito de los derechos humanos y la convivencia son las medidas de reconocimiento de las víctimas del terrorismo (conocidas por el 72%) y los actos en homenaje a las víctimas del franquismo (55%), aunque las actuaciones a las que las y los ciudadanos conceden más importancia son las medidas para el adecuado trato a los detenidos en las comisarías de la Ertzaintza (7,2 puntos en una escala de 0 a 10) y el Plan de Educación para la Paz (7,1).

Entre las medidas sociales adoptadas por el Gobierno Vasco, las más conocidas son el programa Bizigune para la promoción del alquiler y las Viviendas de Protección Oficial (conocido por el 86%) y las ayudas a las familias, por nacimiento de hijos e hijas y para la conciliación de la vida laboral y familiar (84%). Las ayudas para pensionistas y la Ley de Igualdad entre Hombres y Mujeres son las actuaciones a las que la ciudadanía concede mayor importancia (8,2 puntos a ambas en una escala de 0 a 10).

Las medidas más conocidas en el ámbito de las infraestructuras son el Tren de Alta Velocidad (conocido por un 88%) y la extensión del metro de Bilbao a la Margen Izquierda (60%) y las que se consideran más importantes son las medidas para la promoción de Internet y la mencionada extensión del metro (7,5 y 7,4 puntos respectivamente).

Zientzia, teknologia eta ingurumenaren arloan Eusko Jaurlaritzak egindakoetatik ezagunenak Aldaketa Klimatikoaren Aurkako Plana (%64k ezagutzen dute) eta energia iturri berriak bultzatzea (%57) dira eta garrantzi handiena ere horiei eman zaie (8,1 eta 7,7 puntu hurrenez hurren).

Osasunaren arloan, hamar herritarretik seik ezagutzen dituzte utero lepoko minbiziaren aurkako txertoa, ospitale eta osasun zentroak hobetu eta handitzea, botika generikoen erabilera bultzatzeko neurriak eta 65 urtetik gorakoentzat neumoniaren aurkako txertoa. Garrantzi handiena ospitaleak eta osasun zentroak handitu eta hobetzeari (8,8) eta neskatoei utero lepoko minbiziaren aurkako txertoa emateari (8,7) eman diote.

Enpleguaren arloko ekimenak ez dira ezagunak herritar gehienentzat, baina garrantzi handia eman diete, batez ere lan iraunkortasunaren aldeko neurriei (8,3).

Kultura, kirola eta hezkuntzaren arloan Eusko Jaurlaritzak egindako jardueretan 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako eskolak bultzatzea da ezagunena (%59k ezagutzen dute) eta garrantzi gehien ere horixe eman diote (8,1 puntu 0-10 eskalan).

Nolako jarrera politikoak ditugu?

Buruzagi politikoen artetik, herritarrek Ibarretxe Lehendakariari bakarrik eman diote oniritzia, hau da, 5 puntu edo gehiago 0-10 eskalan; zehazki 5,2 puntu jaso ditu. Ondoren datoz José Luis Rodríguez Zapatero (4,4), Iñigo Urkullu (4,3), Patxi López (3,8), Patxi Zabaleta (3,5), Unai Ziarreta (3,1), Javier Madrazo (3,1) eta Gaspar Llamazares (3,1). Hiru puntu baino gutxiago jaso dituzte Nekane Erauskinek (2,7), Arnaldo Otegi (2,4), María San Gilek (2,1) eta azkenik Mariano Rajoyk (1,8).

Euskal Herriaren independentziari dagokionean zatiketa handia dago: EAEko herritarren %22 ados daude, %30 kontra, eta %32k diote egoeraren arabera ados edo kontra egongo lirakeela. %16k ez dute erantzun.

Las actuaciones más conocidas de las realizadas por el Gobierno Vasco en el ámbito de la ciencia, la tecnología y el medio ambiente son el Plan de Lucha contra el Cambio Climático (conocido por un 64%) y la promoción de nuevas fuentes de energía (57%) y estas mismas son también las consideradas más importantes (8,1 y 7,7 puntos respectivamente).

En el ámbito de la sanidad, seis de cada diez ciudadanas y ciudadanos conocen la vacuna contra el cáncer de cuello de útero, las mejoras de hospitales y centros de salud, las medidas para promocionar el uso de medicamentos genéricos y la vacuna contra la neumonía para mayores de 65 años. Las actuaciones que se consideran más importantes son la ampliación y mejora de hospitales y centros de salud (8,8) y la vacunación de las niñas contra el cáncer de cuello de útero (8,7).

Las actuaciones del ámbito del empleo no son conocidas para la mayoría de la población, pero se les concede mucha importancia, sobre todo a las medidas a favor de la estabilidad del empleo (8,3).

La medida más conocida de entre las realizadas por el Gobierno Vasco en relación a la cultura, el deporte y la educación es la promoción de escuelas para niños y niñas de 0 a 3 años (conocidas por un 59%) y también es la que recibe una puntuación más alta en cuanto a su importancia (8,1 puntos en una escala de 0 a 10).

¿Qué actitudes políticas tenemos?

El único líder político que recibe el aprobado de las y los ciudadanos es el Lehendakari Ibarretxe; concretamente le dan 5,2 puntos. Le siguen José Luis Rodríguez Zapatero (4,4), Iñigo Urkullu (4,3), Patxi López (3,8), Patxi Zabaleta (3,5), Unai Ziarreta (3,1), Javier Madrazo (3,1) y Gaspar Llamazares (3,1). Reciben menos de tres puntos Nekane Erauskin (2,7), Arnaldo Otegi (2,4), María San Gil (2,1) y por último Mariano Rajoy (1,8).

Hay una gran división en relación a la independencia del País Vasco: un 22% de las y los ciudadanos de la CAPV están de acuerdo, un 30% en desacuerdo y un 32% dicen que estarían o no de acuerdo dependiendo de las circunstancias. Un 16% no contesta.

A - Egoeraren balorazioa / *Valoración de la situación*


- **EAEko egoera ekonomikoa, politikoa eta soziala / *Situación económica, política y social de la CAPV***
- **EAEko arazo nagusiak / *Principales problemas de la CAPV***
- **Administrazioarekiko poztasuna / *Satisfacción con la administración***

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko egoera ekonomiko, politiko eta sozialaren balorazioa / Valoración de la situación económica, política y social de la CAPV

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Zure ustez nolakoa da egoera ekonomiko, politiko eta soziala EAEn: oso ona, ona, txarra edo oso txarra? / ¿Cómo calificaría Ud. la situación económica, política y social de la CAPV: muy buena, buena, mala o muy mala?



Herritar gehienek EAEko egoera ekonomikoa eta soziala ona edo oso ona dela uste dute. Egoera politikoari dagokionean, aldiz, lautik batek bakarrik dute iritzirik positiboa.

Egoera ekonomikoaren balorazioak okerrera egin du azken urteekin alderatuta, izan ere, orain arte neurtutako iritzirik txarrena da oraingoa. Egoera sozialari buruzko iritzia ez da askorik aldatu azken urteekin, baina dezente hobetu da 2002ko datuekin alderatuz gero. Egoera politikoari buruzkoa, ia izandako gainbeheraren ondoren, antzera mantendu da.

La mayoría de la ciudadanía de la CAPV cree que la situación económica y social de la comunidad es buena o muy buena. Por el contrario, en cuanto a la situación política, sólo uno de cada cuatro tiene una opinión positiva.

La valoración de la situación económica ha empeorado con respecto a años anteriores, de hecho, la actual es la opinión más negativa de las recogidas hasta el momento. La opinión sobre la situación social no ha tenido una variación importante en los últimos años, si bien ha mejorado bastante con respecto a 2002. La valoración de la situación política, tras el declive del pasado año, se ha mantenido.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko egoera ekonomikoaren balorazioa / Valoración de la situación económica de la CAPV

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Zure ustez nolakoa da egoera ekonomikoa Euskadiko Komunitate Autonomoan: oso ona, ona, txarra edo oso txarra? /
¿Cómo calificaría Ud. la situación económica de la Comunidad Autónoma Vasca: muy buena, buena, mala o muy mala?

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				BEGIKOTASUN POLITIKOA SIMPATÍA POLÍTICA									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE- EE	PP	EHAKE	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ NINGUNO	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	Ed-EE NS-NC
OSO ONA / MUY BUENA	2	2	2	2	3	2	3	2	2	1	2	2	4	0	1	2	8	1	2	2
ONA / BUENA	56	61	54	56	59	52	60	56	55	51	60	60	58	53	63	56	56	46	48	51
TXARRA / MALA	31	31	30	33	28	34	27	31	32	34	28	29	29	34	30	30	26	38	33	34
OSO TXARRA / MUY MALA	4	4	4	4	3	5	3	5	4	5	4	4	3	3	2	5	1	6	8	4
ED-EE / NS-NC	7	3	9	5	7	7	6	6	7	9	5	6	5	9	4	6	9	9	10	8
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
EGOERA EKONOMIKOAREN BALANTZEA / BALANCE DE LA SITUACIÓN ECONÓMICA * ..	23	28	22	21	31	15	33	22	21	13	30	29	30	16	32	23	37	3	9	15


* EGOERA EKONOMIKOAREN BALANTZEA: (OSO ONA + ONA) – (TXARRA+OSO TXARRA) / BALANCE DE LA SITUACIÓN ECONÓMICA: (MUY BUENA+BUENA) – (MALA+MUY MALA)

Egoera ekonomikoari buruzko iritzirik onena arabarrek dute eta gizonezkoek emakumezkoek baino hobea. Adinean aurrera egin ahala gero eta gutxiagok egiten dute egoera ekonomikoaren balorazio positiboa.

Iritzirik baikorrena Aralarren jarraitzaileek azaldu dute eta ezkorrena EHAKrenek, inolako alderdirekiko begikotasunik ez dutenek, denekiko begikotasun bera adierazi dutenek eta begikotasunari buruzko iritzirik eman ez dutenek.

La mejor opinión sobre la situación económica es la de las y los alaveses, y la de los hombres es mejor que la de las mujeres. A medida que se aumenta en edad, cada vez son menos quienes valoran de forma positiva la situación económica.

La opinión más positiva corresponde a las y los simpatizantes de Aralar y la más negativa a las y los de EHAK, así como a quienes no simpatizan con ningún partido, lo hacen con todos por igual, o no contestan sobre sus simpatías políticas.



Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko egoera politikoaren balorazioa / Valoración de la situación política de la CAPV


(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Éta nolakoa da Euskadiko Komunitate Autonomoan egoera politikoa: oso ona, ona, txarra edo oso txarra? /

En cuanto a la situación política de la Comunidad Autónoma Vasca, ¿cómo la calificaría, muy buena, buena, mala o muy mala?

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				BEGIKOTASUN POLITIKOA SIMPATIA POLÍTICA									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE- EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ NINGUNO	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	Ed-Ee Ns-Nc
Oso ona / MUY BUENA	1	1	1	0	0	1	1	0	1	0	1	1	1	0	0	0	0	1	1	1
Ona / BUENA	24	30	28	17	24	25	25	23	25	25	35	29	26	17	17	24	16	15	16	18
Txarra / MALA	49	48	46	53	51	47	51	52	49	42	44	48	45	55	62	56	64	52	46	43
Oso txarra / MUY MALA	12	10	10	16	13	11	9	13	14	11	7	9	17	22	11	13	16	15	11	12
Ed-Ee / Ns-Nc	14	11	15	14	12	17	13	12	12	22	13	13	11	6	10	6	5	17	27	27
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
EGOERA POLITIKOAREN BALANTZEA / BALANCE DE LA SITUACIÓN POLÍTICA *	-36	-27	-27	-52	-40	-32	-34	-42	-37	-28	-15	-27	-35	-60	-56	-45	-64	-51	-40	-36

* EGOERA POLITIKOAREN BALANTZEA: (OSO ONA + ONA) – (TXARRA+OSO TXARRA) / BALANCE DE LA SITUACIÓN POLÍTICA: (MUY BUENA+BUENA) – (MALA+MUY MALA)



Kolektibo guztietan gehiago dira egoera politikoa txarra edo oso txarra dela diotenak, ona edo oso ona dela uste dutenak baino.

Iritzirik ezkorrena gipuzkoarrek, gizonezkoek, 30 eta 45 urte bitartekoek eta Aralarren, EHAKren eta EAren jarraitzaileek adierazi dute.

En todo los colectivos son más quienes creen que la situación política es mala o muy mala que quienes opinan que es buena o muy buena.

La opinión más negativa es la de las y los guipuzcoanos, los hombres, quienes tienen entre 30 y 45 años, y quienes simpatizan con Aralar, EHAK o EA.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko egoera sozialaren balorazioa / Valoración de la situación social de la CAPV

(KOLEKTIBOKA / POR COLECTIVOS)

Éta zure ustez nolakoa da Euskadiko Komunitate Autonomoan egoera soziala: oso ona, ona, txarra edo oso txarra? /
Y ¿cómo calificaría la situación social de la Comunidad Autónoma Vasca: muy buena, buena, mala o muy mala?

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD				BEGIKOTASUN POLITIKOA SIMPATÍA POLÍTICA									
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65	EAJ/ PNV	PSE- EE	PP	EHAKE	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ NINGUNO	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	Ed-EE NS-NC
OSO ONA / MUY BUENA	3	2	3	3	3	3	6	3	1	3	3	3	2	2	4	3	5	2	3	4
ONA / BUENA	62	57	61	65	62	61	68	61	59	60	66	61	59	55	66	63	66	56	58	64
TXARRA / MALA	26	32	24	26	25	26	19	28	29	24	22	26	28	33	25	32	21	29	27	20
OSO TXARRA / MUY MALA	2	2	3	2	3	2	2	3	3	1	2	2	2	4	1	1	4	4	3	2
ED-EE / NS-NC	7	6	9	4	7	8	5	5	7	12	7	7	9	6	4	1	4	9	9	10
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
EGOERA SOZIALAREN BALANTZEA / BALANCE DE LA SITUACIÓN SOCIAL *	37	25	37	40	37	36	53	33	28	38	45	36	31	20	44	33	46	25	31	46


* EGOERA SOZIALAREN BALANTZEA: (OSO ONA + ONA) – (TXARRA+OSO TXARRA) / BALANCE DE LA SITUACIÓN SOCIAL: (MUY BUENA+BUENA) – (MALA+MUY MALA)

Egoera sozialari buruzko iritzi baikorra, ezkorra baino zabaldiago dago kolektibo guztietan.

Iritzirik onena gipuzkoarrek, 18 eta 29 urte bitartekoek eta EAJren, EAren eta Aralarren jarraitzaileek adierazi dute eta txarrena berriz, arabarrek, 46 eta 64 urte bitartekoek eta EHAKren jarraitzaileek edota inolako alderdirekiko begikotasunik ez dutenek.

La opinión positiva sobre la situación social está más extendida que la negativa en todos los colectivos.

Quienes expresan una opinión más favorable son las y los guipuzcoanos, quienes tienen entre 18 y 29 años, y quienes simpatizan con PNV, EA y Aralar, y la más negativa, por el contrario, las y los alaveses, quienes tienen entre 46 y 64 años, y quienes simpatizan con EHAK o no simpatizan con ningún partido.




Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /

En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma Vasca? *



* ERANTZUNAK ESPONTANEOAK DIRA. HIRU ERANTZUN EMAN AHAL ZIREN / LAS RESPUESTAS SON ESPONTÁNEAS. SE PODÍAN DAR HASTA 3 RESPUESTAS.

Herritarren ustez, EAEko arazo nagusiak lan merkatua (langabezia eta lan baldintzak), etxebizitza eta indarkeria eta terrorismoa dira. Horien atzetik datoz arazo ekonomikoak, Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa eta immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak (arrazismoa eta abar). Gainerako arazo bakoitza, herritarren %5ek baino gutxiagok aipatu dute.

Aurreko neurketetan baino jende gutxiagok aipatu ditu etxebizitza eta lan merkatua arazo nagusitzat; arazo ekonomikoak, aldiz, gero eta herritar gehiagok aipatzen dituzte eta lehenengo aldiz gehiago dira arazo ekonomikoaren aipamenak Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoarenak baino. Immigrazioa eta harekin lotutako arazoak ere azken neurketetan baino gehiago aipatu dira, aurreko urteetako maila berreskuratuz.

En opinión de las y los ciudadanos los principales problemas de la CAPV son el mercado de trabajo (el paro y las condiciones laborales), la vivienda y la violencia y el terrorismo. Les siguen Los problemas económicos, el conflicto y la situación política del País Vasco y la inmigración y problemas relacionados con ella (racismo, etc.). Cada uno del resto de los problemas ha sido mencionado por menos de un 5% de las y los ciudadanos.

La vivienda y el mercado de trabajo han sido menos mencionados que en anteriores ocasiones; por el contrario, los problemas económicos son cada vez más mencionados y por primera vez reciben más menciones que el conflicto y la situación política del País Vasco. La inmigración y los problemas relacionados con ella también se han mencionado algo más que en la anterior medición, recuperando el porcentaje de años anteriores.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV

(KOLEKTIBOKA | / POR COLECTIVOS I)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /

En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma Vasca? *

	2008KO APIRILA	LURRALDEA / TERRITORIO		
	ABRIL 2008	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZENKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK...)/ MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES LABORALES...)	47	44	51	41
ETXEBIZITZA / VIVIENDA	46	42	45	50
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO DE PAZ	43	48	50	30
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)	22	17	22	25
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / CONFLICTO Y SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO	20	15	16	30
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,...) / INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,...)	10	14	11	7
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / DELINCUENCIA E INSEGURIDAD CIUDADANA	4	4	5	2
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,...) / INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,...)	3	6	3	3
PENTSIOAK / PENSIONES	3	3	2	5
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS	3	5	2	3
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES	3	4	3	2
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL	2	4	3	2
HEZKUNTZA / EDUCACIÓN	2	3	3	1
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA... / CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO...	2	2	1	3
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES	2	3	2	1
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA	1	1	1	1
DROGAK / DROGAS	1	2	1	1
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,...) / PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,...)	1	2	1	1
INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE	1	1	1	1
FAMILIA	0	0	1	0
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA	0	1	0	0
USTELKERIA ETA IRUZURRA / CORRUPCIÓN Y FRAUDE	0	0	0	0
BESTE ARAZO BATZUK / OTROS PROBLEMAS	2	2	2	2

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO / SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS.

Araban eta Bizkaian gehien aipatutako arazoak lan merkatua, etxebizitza eta indarkeria eta terrorismoa izan dira, hurrenkeraren desberdinetan bada ere. Gipuzkoan, Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa indarkeria eta terrorismoa adina jendeak aipatu du.

Bizkaitarrek gainerakoek baino gehiago aipatu dituzte lan merkatua eta indarkeria eta terrorismoa, azken hori arabarrek batera. Araban gainerako lurraldeetan baino gehiago aipatu dira immigrazioa eta harekin lotutako arazoak eta azpiegitura eta garraioak; eta Gipuzkoan gainerakoetan baino gehiago etxebizitza eta Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa.

En Araba y en Bizkaia los problemas más mencionados son el mercado de trabajo, la vivienda y la violencia y el terrorismo, aunque en órdenes diferentes. En Gipuzkoa el conflicto y la situación política del País Vasco se menciona tanto como la violencia y el terrorismo.

Las y los vizcaínos mencionan más que el resto el mercado de trabajo y la violencia y el terrorismo, este último problema junto con las y los alaveses. En Araba se ha mencionado más que en los demás territorios la inmigración y los problemas relacionados con ella y las infraestructuras y el transporte; y en Gipuzkoa más que en el resto la vivienda y el conflicto y la situación política del País Vasco.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /
En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma Vasca? *

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	SEXUA / SEXO		ADINTALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZENGONKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK...)/ MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES LABORALES...)	47	47	46	44	53	51	34
ETXEBIZITZA / VIVIENDA	46	47	45	58	52	45	29
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO DE PAZ	43	46	41	29	47	48	47
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)	22	21	24	18	23	24	24
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / CONFLICTO Y SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO	20	22	18	20	20	24	17
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,...) / INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,...)	10	10	10	10	13	10	7
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / DELINCUENCIA E INSEGURIDAD CIUDADANA	4	4	4	4	3	5	3
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,...) / INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,...)	3	4	2	5	3	3	2
PENTSIOAK / PENSIONES	3	2	4	0	0	1	12
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS	3	2	3	2	3	2	3
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES	3	3	2	2	3	4	1
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL	2	2	3	1	2	3	3
HEZKUNTZA / EDUCACIÓN	2	2	2	3	3	1	1
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA... / CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO,...	2	2	2	1	1	2	3
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES	2	1	2	2	2	2	2
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA	1	1	1	2	1	1	1
DROGAK / DROGAS	1	1	1	1	1	1	1
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,...) / PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,...)	1	1	1	1	0	0	1
INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE	1	1	1	1	1	1	0
FAMILIA	0	0	0	0	1	0	0
JUSTIZIAREN FUNZIONAMENDUA / FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA	0	0	0	0	0	0	0
USTELKERIA ETA IRUZURRA / CORRUPCIÓN Y FRAUDE	0	0	0	0	0	0	0
BESTE ARAZO BATZUK / OTROS PROBLEMAS	2	2	1	2	1	2	1

Ez dago alde handirik gizon eta emakumeen artean EAEko arazo nagusiak aipatzean. Dena dela, gizonezkoek emakumezkoek baino gehixeago aipatu dituzte indarkeria eta terrorismoa, Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa eta azpiegiturak eta garraioa; eta emakumezkoek, aldiz, gizonezkoek baino gehixeago arazo ekonomikoak eta pentsioak.

Lan merkatua 30 eta 64 urte bitartekoek aipatu dute gehien, eta indarkeria eta terrorismoa eta arazo ekonomikoak 30 urtetik gorakoek, gazteenek baino gehiago. Etxebizitza gero eta gutxiago aipatu da adinean aurrera egin ahala eta pentsioak, berriz, 65 urte edo gehiagokoek bakarrik aipatu dituzte ia.

No hay grandes diferencias entre hombres y mujeres en cuanto a los problemas principales de la CAPV que mencionan. En cualquier caso, los hombres mencionan algo más que las mujeres la violencia y el terrorismo, el conflicto y la situación política del País Vasco, y las infraestructuras y el transporte; las mujeres, por el contrario, mencionan algo más que los hombres los problemas económicos y las pensiones.

El mercado laboral es más mencionado por quienes tienen entre 30 y 64 años, y la violencia y el terrorismo y los problemas económicos por las y los mayores de 30 años, más que por los más jóvenes. La vivienda se menciona cada vez menos a medida que se avanza en edad, y las pensiones, son casi exclusivamente mencionadas por quienes tienen 65 o más años.

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO / SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV

(KOLEKTIBOKA III / POR COLECTIVOS III)

Zure ustez, zeintzuk dira Euskadiko Komunitate Autonomoko hiru arazo nagusiak? * /
En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la Comunidad Autónoma Vasca? *

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	BEGIKOTASUN POLITIKOIA SIMPATÍA POLÍTICA									
		EAJ/ PNV	PSE- EE	PP	EHAk	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ NINGUNO	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	Ed-Ee Ns-Nc
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZENKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK...)/ MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES LABORALES...)	47	48	49	40	51	47	47	44	44	51	44
ETXEBIZITZA / VIVIENDA	46	46	47	35	54	48	53	55	49	42	38
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO DE PAZ	43	47	54	65	13	40	47	32	29	38	44
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOIA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)	22	22	20	28	25	25	23	27	22	21	19
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOIA / CONFLICTO Y SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO	20	16	10	17	51	34	17	36	24	16	20
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,...) / INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,...)	10	10	10	12	8	7	13	4	9	20	9
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / DELINCUENCIA E INSEGURIDAD CIUDADANA	4	5	4	3	1	3	6	3	4	6	3
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOIA, APARKALEKUAK,...) / INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,...)	3	2	3	3	3	1	5	7	4	4	3
PENTSIOAK / PENSIONES	3	5	2	5	0	4	1	2	3	2	2
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS	3	2	3	3	2	3	2	3	2	5	3
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES	3	2	3	0	3	4	4	4	3	3	3
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL	2	3	3	1	2	0	3	0	2	2	4
HEZKUNTZA / EDUCACIÓN	2	3	2	2	3	2	2	2	1	3	1
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA... / CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO...	2	2	2	0	1	8	3	4	1	1	2
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES	2	2	2	1	4	1	2	1	1	3	2
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA	1	1	1	4	2	1	1	1	2	1	0
DROGAK / DROGAS	1	1	1	1	2	4	1	1	2	1	0
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,...) / PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,...)	1	1	1	0	0	0	2	0	1	0	1
INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE	1	0	0	0	1	1	2	2	2	0	1
FAMILIA	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0	0
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
USTELKERIA ETA IRUZURRA / CORRUPCIÓN Y FRAUDE	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
BESTE ARAZO BATZUK / OTROS PROBLEMAS	2	2	1	1	1	0	1	2	1	4	3

* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO / SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS.

EHAKren jarraitzaileek gainerakoek baino gehiago aipatu dute lan merkatua, EBren eta Aralarren jarraitzaileekin batera etxebizitza, eta EAren eta Aralarrenekin batera Euskal Herriko gatazka eta egoera politikoa. PPren eta PSE-EEren jarraitzaileek gainerakoek baino gehiago aipatu dute indarkeria eta terrorismoa eta PPrenek eta Aralarrenekin batera arazo ekonomikoak. Gainera, Aralarren jarraitzaileek gainerakoek baino gehiago aipatu dituzte azpiegitura eta garraioak eta EArenekin batera krisia.

Las y los simpatizantes de EHAK mencionan más que el resto el mercado laboral, la vivienda (junto con quienes simpatizan con EB y Aralar), y el conflicto y la situación política del País Vasco (seguidos de las y los simpatizantes de EA y Aralar). Quienes simpatizan con PP y PSE-EE mencionan más que el resto la violencia y el terrorismo, y las y los del PP, junto con las y los de Aralar, también los problemas económicos. Además, las y los simpatizantes de Aralar también mencionan más que el resto las infraestructuras y transportes y las y los de EA la crisis de valores.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación

EAEko arazo nagusiak / Principales problemas de la CAPV

(ESPAINIAKO ESTATUAREKIKO ALDERAKETA / COMPARACIÓN CON EL ESTADO ESPAÑOL)

Zure ustez, zeintzuk dira EAEko hiru arazo nagusiak? * / En su opinión, ¿cuáles son los tres problemas más importantes de la CAPV? *	EAE 2008KO APIRILA CAPV ABRIL 2008	ESPAINIAKO ESTATUA 2008KO APIRILA** ESTADO ESPAÑOL ABRIL 2008**
LAN MERKATUA (LANGABEZIA, LAN BALDINTZAK: EZEGONKORTASUNA, SOLDATAK, LAN ISTRIPUAK...)/ MERCADO DE TRABAJO (PARO, CONDICIONES LABORALES: PRECARIEDAD, SUELDOS, ACCIDENTES LABORALES...)	47	60
ETXEBIZITZA / LA VIVIENDA	46	26
INDARKERIA, TERRORISMOA, BAKE FALTA, BAKE PROZESUA / VIOLENCIA, TERRORISMO, FALTA DE PAZ, PROCESO PAZ***	43	31
ARAZO EKONOMIKOAK (EGOERA EKONOMIKOA, BIZIMODUAREN GARESTITZEA) / PROBLEMAS ECONÓMICOS (SITUACIÓN ECONÓMICA, CARESTÍA DE LA VIDA)	22	49
EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA EGOERA POLITIKOA / EL CONFLICTO Y LA SITUACIÓN POLÍTICA EN EL PAÍS VASCO***	20	10
IMMIGRAZIOA ETA HORREKIN LOTUTAKO ARAZOAK (ARRAZAKERIA,...) / LA INMIGRACIÓN Y PROBLEMAS RELACIONADOS (RACISMO,...)	10	26
DELINKUENTZIA ETA SEGURTASUN FALTA / LA DELINCUENCIA Y LA INSEGURIDAD CIUDADANA	4	12
AZPIEGITURAK ETA GARRAIOAK (TRAFIKOA, APARKALEKUAK,...) / INFRAESTRUCTURAS Y TRANSPORTE (TRÁFICO, APARCAMIENTO,...)	3	1
PENTSIOAK / PENSIONES	3	3
ZERBITZU PUBLIKOEN FUNTZIONAMENDUA ETA HEDADURA, LAGUNTZAK / FUNCIONAMIENTO Y COBERTURA DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS, AYUDAS	3	1
ARAZO ETA DESBERDINTASUN SOZIALAK / PROBLEMAS Y DESIGUALDADES SOCIALES	3	4
OSASUNGINTZA, OSAKIDETZA, GIZARTE SEGURANTZA / SANIDAD, OSAKIDETZA, SEGURIDAD SOCIAL	2	5
HEZKUNTZA / EDUCACIÓN	2	4
BALIOEN KRISIA, NORBEREKERIA, INTOLERANTZIA, ERRESPETU FALTA... / CRISIS DE VALORES, EGOÍSMO, INTOLERANCIA, FALTA DE RESPETO,...	2	2
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA / VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES	2	3
HIZKUNTZA EGOERAREKIN LOTUTAKO ARAZOAK / PROBLEMAS RELACIONADOS CON LA SITUACIÓN LINGÜÍSTICA	1	-
DROGAK / DROGAS	1	2
GAZTEEN ARAZOAK (LOKALEN FALTA,...) / PROBLEMAS DE LA JUVENTUD (FALTA DE LOCALES,...)	1	1
INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE	1	3
FAMILIA	0	-
JUSTIZIAREN FUNTZIONAMENDUA / FUNCIONAMIENTO DE LA JUSTICIA	0	3
BESTE ARAZO BATZUK / OTROS PROBLEMAS	2	4


* INKESTATUEK ESPONTANEOKI EMANDAKO ERANTZUNAK ONDOREN KODIFIKATU DIRA. PORTZENTAJEEN BATURA EZ DA 100, HIRU ARAZO AIPATU AHAL ZIRELAKO. EAE N EAEKO ARAZOEI BURUZ GALDETU DA ETA ESTATUAN ESPAINIAKO ARAZOEI BURUZ / SE HA REALIZADO UNA CODIFICACIÓN POSTERIOR DE LAS RESPUESTAS DADAS ESPONTÁNEAMENTE POR LAS PERSONAS ENCUESTADAS. LOS PORCENTAJES NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN MENCIONAR HASTA TRES PROBLEMAS. EN LA CAPV SE HA PREGUNTADO ACERCA DE LOS PROBLEMAS DE LA CAPV Y EN EL ESTADO ACERCA DE LOS PROBLEMAS DE ESPAÑA.

** CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS): 2.761 IKERKETA, 2008KO APIRILEKO BAROMETROA. DATUAK BIRIBILDU DIRA DEZIMALAK KENDUTA / CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLOGICAS): ESTUDIO Nº 2.761 CORRESPONDIENTE AL BARÓMETRO DE ABRIL DE 2008. LOS DATOS HAN SIDO REDONDEADOS ELIMINANDO DECIMALES

*** ESTATUAN BAKARRIK INDARKERIA ETA EGOERA POLITIKOA (GOBERNUA, ALDERDIAK, NAZIONALISMOAK,...) AIPATU DIRA, EZ EUSKAL GATAZKA POLITIKOA EDOTA BAKE PROZESUA / EN EL ESTADO SÓLO SE MENCIONAN EL TERRORISMO Y LA SITUACIÓN POLÍTICA (GOBIERNO, PARTIDOS, NACIONALISMOS,...), NO EL CONFLICTO POLÍTICO VASCO O EL PROCESO DE PAZ.


EAEko herritarrek Espainiako Estatukoek baino gehiago aipatu dituzte arazo nagusizat etxebizitza, indarkeria eta terrorismoa eta egoera politikoa eta gutxiago, aldez, lan merkatua, arazo ekonomikoak, immigrazioa eta horrekin lotutako arazoak eta delinkuentzia eta segurtasun falta.

Las y los ciudadanos de la CAPV mencionan más que los del Estado Español como problemas principales la vivienda, la violencia y el terrorismo y la situación política, y menos que éstos, por el contrario, el mercado laboral, los problemas económicos, la inmigración y problemas relacionados con ella y la delincuencia y la inseguridad ciudadana.



Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación Administrazioarekiko poztasuna / Satisfacción con la Administración

(GUZTIZKOAK ETA BILAKAERA / TOTALES Y EVOLUCIÓN)



* POZTASUN BALANTZEA: POZIK - EZ POZIK / BALANCE DE SATISFACCIÓN: SATISFECHO/A - INSATISFECHO/A

Euren herriko udalarekin, beren lurraldeko Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Europako Batzordearekin pozik dauden herritarrek gehiago dira pozik ez daudenak baino. Espainiako Gobernuarekin pozik daudenak pozik ez daudenak adina dira.

Udalekiko eta Europako Batzordearekiko poztasuna 2001etik neurtutako altuena da oraingoan eta Foru Aldundiekikoa eta Eusko Jaurlaritzarekikoa 2004tik honako altuena. Espainiako Gobernuarekiko poztasun maila igo egin da iazko neurketarekiko, ia 2006an izandako maximora iritsiz.

Las y los ciudadanos satisfechos con el Ayuntamiento de su localidad, la Diputación de su territorio, el Gobierno Vasco, y la Comisión Europea son más que quienes no están satisfechos. En cuanto al Gobierno Español, las y los satisfechos son tantos como quienes no lo están.

La satisfacción con los Ayuntamientos y la Comisión Europea es la más alta desde 2001 y con respecto a las Diputaciones y al Gobierno Vasco es la más alta desde 2004. La satisfacción con el Gobierno Español ha mejorado con respecto a los datos del pasado año, llegando casi a alcanzar el máximo recogido en 2006.

Egoeraren balorazioa / Valoración- de la situación

Administrazioarekiko poztasuna / Satisfacción con la Administración

(KOLEKTIBOKA | / POR COLECTIVOS I)

Bestalde, oro har, pozik zaude ala ez zaude pozik... / Por otro lado, ¿está Ud. satisfecho/a o insatisfecho/a con...?

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	LURRALDEA / TERRITORIO			SEXUA / SEXO		ADIN TALDEAK GRUPOS DE EDAD			
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GIZONEZKOA VARÓN	EMAKUMEZKOA MUJER	18-29	30-45	46-64	≥65
ZURE HERRIKO/HIRIKO UDALAREKIN / CON EL AYUNTAMIENTO DE SU LOCALIDAD										
Pozik / Satisfecho/a	70	69	70	69	66	73	66	64	71	79
Ez pozik / Insatisfecho/a	24	27	24	24	28	20	27	29	24	16
Ed-Ee / Ns-Nc	6	4	6	7	6	6	7	7	5	5
Poztasun balantzea / Balance de satisfacción *	46	42	46	45	38	53	39	35	47	63
DIPUTAZIOAREKIN / CON SU DIPUTACIÓN										
Pozik / Satisfecho/a	66	73	68	59	64	67	63	59	69	73
Ez pozik / Insatisfecho/a	21	20	19	24	25	17	22	26	20	15
Ed-Ee / Ns-Nc	13	8	13	16	11	16	15	15	12	12
Poztasun balantzea / Balance de satisfacción *	45	53	49	35	39	50	41	33	49	58
EUSKO JAURLARITZAREKIN / CON EL GOBIERNO VASCO										
Pozik / Satisfecho/a	62	66	63	58	59	65	61	57	61	71
Ez pozik / Insatisfecho/a	28	26	28	30	32	24	27	33	30	21
Ed-Ee / Ns-Nc	10	8	9	12	9	11	12	10	10	8
Poztasun balantzea / Balance de satisfacción *	34	40	35	28	27	41	34	24	31	50
ESPAINIAKO GOBERNUAREKIN / CON EL GOBIERNO ESPAÑOL										
Pozik / Satisfecho/a	43	53	43	40	40	47	41	40	41	54
Ez pozik / Insatisfecho/a	43	37	43	44	47	39	45	47	44	34
Ed-Ee / Ns-Nc	14	10	14	16	13	15	14	13	15	13
Poztasun balantzea / Balance de satisfacción *	0	16	0	-4	-7	8	-4	-7	-3	20
EUROPAKO BATZORDEAREKIN / CON LA COMISIÓN EUROPEA										
Pozik / Satisfecho/a	37	42	40	30	37	38	38	36	36	40
Ez pozik / Insatisfecho/a	27	23	28	28	30	24	33	31	25	19
Ed-Ee / Ns-Nc	35	35	32	41	33	38	29	32	39	41
Poztasun balantzea / Balance de satisfacción *	10	19	12	2	7	14	5	5	11	21
(EHUNEKO BERTIKALAK) / (PORCENTAJES VERTICALES)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* POZTASUN BALANTZEA: POZIK - EZ POZIK / BALANCE DE SATISFACCIÓN: SATISFECHO/A - INSATISFECHO/A

Espainiako Gobernu eta Europako Batzordearekiko poztasun mailarik handiena arabarrek adierazi dute eta Foru Aldundiekiko eta Eusko Jaurlaritzarekiko arabar eta bizkaitarrek gipuzkoarrek baino poztasun handiagoa dute.

Emakumezkoek gizonezkoek baino poztasun maila handiagoa adierazi dute administrazio guztiekiko.

65 urte edo gehiagokoek adierazi dute administrazio guztiekiko poztasun mailarik altuena. Baxuena berriz 30 eta 45 urte bitartekoek azaldu dute, Europako Batzordeari dagokionean 30 urtetik beherakoekin batera.

La mayor satisfacción con el Gobierno Español y la Comisión Europea la han expresado las y los alaveses; y con respecto a las Diputaciones y el Gobierno Vasco las y los alaveses y vizcaínos se muestran más satisfechos que las y los guipuzcoanos.

Las mujeres se muestran más satisfechas que los hombres con todas las administraciones.

El mayor nivel de satisfacción con todas las administraciones corresponde a quienes tienen 65 años o más. La menor satisfacción es la de quienes tienen entre 30 y 45 años, junto con las y los menores de 30 años, en relación a la Comisión Europea.

Egoeraren balorazioa / Valoración de la situación Administrazioarekiko poztasuna / Satisfacción con la Administración

(KOLEKTIBOKA II / POR COLECTIVOS II)

Bestalde, oro har, pozik zaude ala ez zaude pozik... / Por otro lado, ¿está Ud. satisfecho/a o insatisfecho/a con...?

	2008KO APIRILA ABRIL 2008	BEGIKOTASUN POLITIKOA SIMPATÍA POLÍTICA									
		EAJ/ PNV	PSE- EE	PP	EHAK	EA	EB	ARALAR	BAT ERE EZ NINGUNO	DENAK BERDIN TODOS POR IGUAL	Ed-Ee Ns-Nc
ZURE HERRIKO/HIRIKO UDALAREKIN / CON EL AYUNTAMIENTO DE SU LOCALIDAD											
Pozik / SATISFECHO/A	70	82	78	69	53	72	60	60	52	70	70
Ez pozik / INSATISFECHO/A	24	15	19	26	42	23	35	33	35	25	18
Ed-Ee / Ns-Nc	6	3	3	5	5	5	5	7	13	5	12
POZTASUN BALANTZEA / BALANCE DE SATISFACCIÓN *	46	67	59	43	11	49	25	27	17	45	52
DIPUTAZIOAREKIN / CON SU DIPUTACIÓN											
Pozik / SATISFECHO/A	66	79	70	63	43	76	60	59	53	56	67
Ez pozik / INSATISFECHO/A	21	12	19	25	41	17	27	30	28	22	13
Ed-Ee / Ns-Nc	13	9	11	12	16	7	13	11	20	22	20
POZTASUN BALANTZEA / BALANCE DE SATISFACCIÓN *	45	67	51	38	2	59	33	29	25	34	54
EUSKO JAURLARITZAREKIN / CON EL GOBIERNO VASCO											
Pozik / SATISFECHO/A	62	82	62	53	37	75	52	56	50	59	60
Ez pozik / INSATISFECHO/A	28	13	29	42	54	16	36	32	38	24	21
Ed-Ee / Ns-Nc	10	6	9	6	9	9	11	12	13	17	19
